

Isidoro Fagoaga

Zeruko Argia, 683. zk., 1976-04-11: 24.

Isidoro Fagoagarekin egon berria naiz izketan.

Iru ordu paseak.

Ara norainokoak ditugun aurrerapenak: orain lau urte juxtu Donostian Aita Larroka kaleko etxe batean itzegin genituenak, gaur berri-bizirik.

Bitartetxo hontan, ordea, Ixidoro il.

Zarrasta egin dit.

Baina, zarrasta, ez bakarrik egin genuen elkar-izketa hura gaurkotu ahal izan dudalako bakarrik, baita euskaldun fin honek amalau urte luze igaro *behar* izan zituela Donibane Lohitzunen bertan nik berrentzun *behar* izan dudalako ere. Honek, zera esan nahi bait du gutxienez: larogei urte paseak zituen Ixidoro, oraindik gazte zaneko zori zahar eta txar ber-berean aurkitzen deia gaur ogei urte estrenatu berri den gure mutil asko hemen.

Zenbat bekatu egin dugu, ba, zigor hau merezi izateko?

Edo nor besterik da hemen bekatari!

Izketaldi honen bidetik atzeraka abiatu bezain laster aurkitu naiz, Oiartzungo aitona, Santakruz apaizarekin orain eun urte ibili zelako hemen jaioa den batekin, eta baita orain dela ia eun eta berrogei urteko guda karlista denboran Bidasoa ibaia pasa eta arbasoa nondik nora ibilia izan zenen ondoreak jakin eta ahazteko ere aina denbora izan duen norbaitekin.

Oraindik eten gabeko guda ber-bera dirudi.

Zein madarikaziok jo gaitu, Ixidoro!

Unamunok esan zuen behin, gure erria, bi gelako etxea dugula, eta batean sua denean, bestera pasatzen gara.

Jainkoak ibaiak hontarako sortu balitu bezala!

Noiz zatitzen dira etxeak honela?

Ibaiek ur-bazter garbiak dituztenean, bazterrak elkartzen dituzte; itsaso zabalenak ere gizonaren ontzi-bide izaten diren antzera, bakea justizian denean; baina bi ertzak karabinero-jendarmez josi eta labanaz bezala gure erria bitan zaitzeko diren hoiek, ibaiari gizonak makurkeriaz *ezarri* egin dizkio, indarrez leporatu.

Unamunok aipatu ez zituen ertz zorrotz hoiek ondo ezagutu zituen Ixidorok.

Etxeari sua eman ziotenak ere bai.

Eta ala eta guztiz ere, ez zuen Ixidoro Fagoagak inorentzat gorrotorik gorde.

Aipatu dudan izketaldi hontan esan zizkidan denak ez nituen *Hablado con los vascos* liburuan jarri; neretzat esanak izan ziren batzuk ere ez ditut, noski, inoiz esango. Artu zuen, bai, minik, guk denok bezala; eta, askotan, gu emateko gai ez garen bezala jakin zuen amore ematen.

Ixidoro nor izan zenaren adibide bezala, puntu bat bakarrik aipatu nahi dut hemen.

Abeslari eta antzezlari ospatsua zenez, izan zuen antzeztu behar zituen pertsonajeak bereizteko aukera, eta hoietatik bi zituen begi-begiko: *Parsifal* eta *Sigfrido*.

Galdetu nion zergatik.

– Ara –esan zidan– argumentu bat onartzeko, barru-barrutik bizi eta senti nezakeena behar nuen; gero, pertsonajea izketan jarri eta honen ahoz abesteko sendimen-egarri hori senti araziko zidan pertsonajea. Neri gehien eragin zidana. Parsifal izan zen. Dakizuenez, Wagner-ek garai batean ain maite zuen Eskaindinabi eta Germaniko gorroto eta aierkundera berekin zeramatzan mitoen gurtza baztertu eta Parsifal sortu zuen. Aldakuntza aundia! Parsifal, maitasuna bait da. Parsifal antzezten nuenean, ni Kristo nintzen, nik konsagratzen nuen, nik bataiatzen nuen, usoa jeixten zen... izan dut nik beti kristautza sentitzeko behar-bide berezi hau. Orain ere. Ez dut, halere, klerikalismoa maite, eta nerea, beste goragoko zerbait da. Gero eta aundiago ikusten dut Kristo. Ez dakit Biziazen eta bizitzeko arrazoiaren bila gabiltzalako ala ainbeste izpiritu-asmo-gogo senti arazi digun Norbait izan delako den, ez dakit. Begira: batetik, aspaldi-aspalditik axaleko besterik ez diren eliz-ohituretatik urundu-edo egin naiz... Hauxe esan nion behin Aita Inazio Errandoneari: ni gero eta kristauago sentitzen naizela, baina lehendabiziko kristau haien izpirituarekin; haien seinalea, batez ere, anaitasuna, maitasuna, garbitasuna eta txirotasuna bait ziren... (abotsa begirunetsu makur-jeitxi zaio Ixidorori). Nere erlijioa hau da. Esan nion Aita Errandonea-ri: gauero egiten dut nik egun guzian egin-esan ditudanen barren-azterpena, eta ondo ez dagoen zerbait esan edo egin badut, inori kalte egin badiot, ni ahaleginduko natzaio okerra zuzentzen... Batzuek, amar aginduak bitara biltzen dituzte: denen gainetik Jainkoa maitatzea, eta lagun-urkoa bakoitzak bere burua bezala maitatzea. Eta ondo dago. Baina, nik oraindik gehiago laburtzen dut; zeren, egitaz maitatzea gauza oso zaila denez, ondo ezagutzen ez dugun Jainkoa ezin da errezkari gauza guzian gainetik maita. Jainkoa, gure lagun-urkoan ikusten dugu ondo eta urbilen, eta, hala, nik amar aginduak batean utzi ditut: ez iezaiozu inori, zuk zeuretzat nahi ez duzunik egin.

– Ederra da –esan nion–. Eta, nondik nabaitu zenuen Sigfrido-ren eragina?

– Hau beste gauza da. Sigfrido, Wagner-ek beldur-gabeko gizon bulartsu baten gogo bizia piztu zion pertsonaje bat da; nik orduan nolabait gure erri-baserrietako gazte pelotariak eta palankariak sentitzen nituen bezalako garbi eta indartsu den zerbait; Sigfrido-k, goi-goiko bizia eta egia nagusitu behar ditu; deustar mitologian askotan gertatzen den bezala, ezpataz izpiritu txarrak garaitu behar ditu; eta egitan maiz gertatzen den antzera, Sigfrido atzetik, traizioz, iltzen dute...

Berriak, zahar izan.

Ospe aundiko gizona izan zenez, ez ziren Bera eta Nafarroa eta Euskal Erriko gizon aundi izan zen honen bideak errazak izango; arrixkua duten ibil-bideak beti dira ondo ibiltzen zailagoak. Baina Ixidorok, egiaren alde eta makurkeriaren, gehiegikeriaren eta indarkeriaren aurka altxa diren pertsonajeak maite eta aukeratu zituenez, agerian dago zein bidetatik ahalegindu zen.

Asmo hau eta itz hoiek ereduak izan zitzaizkidan orain dela lau urte entzun nizkionean.

Erakuspenez akulatuak iruditzen zaizkit gaur, berrentzun dizkiodanean.

Orain ez digu ibai batek (ain Bera-ko eta berea zuen ibaiak) ikustera joateko bidea ertz-itsusiz ebakitzen; orain, Eriotza dugu tarteko.

Mugarik zahar-berri-nagusiena.

Muga Nagusiaz aruntz ikus arte, Ixidoro.